

# **AEBetako ikasle talde batek Ekonomia eta Negozioei buruzko programa batean parte hartu du Donostiako campusean**

Ekainean zehar eman da Donostiako campusean Ekonomia eta Negozioei buruzko programa bat, AEBetako ikasleei zuzenduta. Berrogei ikasle egon ziren programa horretan parte hartzen honako gaien inguruan: Espainiar gizartea eta ekonomia, Europar Ekonomia eta Nazioarteko negozioak. Laugarren aldiz eskaini da programa hau Donostian, Espainierako Nazioarteko Ikastegiak atzerriko ikasleen prestakuntzarako antolatutako udako prestakuntza programaren barruan.